

## **BIZI BERRI BATEN BILA**

Uxue Imaz Munduate

*Ataun*

Egunsentia begiak ezin zabaldurik zegoen, laino trinkoak ez zion eguzkiari ateratzen uzten. Miren leihotik begira zegoen, begiak malkoz beteta, masailetik behera irristatzen ziren bitartean.

Buruan pentsamenduak kolpeka zituen, bata bestearen atzetik, ez zien atsedetik ematen, ez, behintzat, orain arte.

Miren Nafarroako herri txiki batekoa zen, nahiz eta orain Madrilen bizi. Ez zen eroso sentitzen, baina bere bikotekideak hala erabakita zuenez bere atzetik joan zen itsu-itsuan. Atzean utzi zuen bere lana, (herriko zaharrak zaintzen zituen zentro batean), baita familia ere, gurasoei ez zitzaien oso ondo iruditu (era horretan) bere ordura arteko bizia era horretan uztea eta zerotik hastea.

Mireni gehiegi iruditu zitzaion hori, berak ere eskubidea baitzuen ordura arte ezagutu ez zuen biziari ateak irekitzeko, maitasunak gogor jo zuen Mirenen bizia, bizi berriari hasiera emateko prest zegoen.

Madriilen aurreneko egunak gogorrak izan ziren, eta 2 urte pasatuta ere, egoera berdina edo okerragoa zen bere egunerokoa.

Baina dena ez zen tristura, eta Miren bere pentsamenduetatik atera zuen hots goxo batek, Nahia zen, 3 hilabeteko haurra, bera zen Mirenen bizia. Nahiak egun gehiena lotan pasatzen zuen, eta bere amak ez bezala, umetxoak ez zuen negar askorik egiten. Mirenek hitz goxoak eskaini zizkion bere alabatxoari, eta maitasun handiz bere titiaren kontra jarri zuen, esnea har zezan. Orduak pasatuko lituzke umeari begira, bera baitzen ohetik altzarazten zuena, indarra ematen ziona.

Bikotekidearekin, berriz, gauzak gaizki edo okerrago zeuden. Karlos izatez Zaragozako zen, baina elkar ezagutu zutenean Nafarroan bizi zen bere amonarekin. Askotan egoten zen langabezian, eta orain Mirenek ere ezin zion gauza askotan lagundu. Etxeko giroa oso gogorra izaten zen, eta orduan, Miren bere amaz gogoratzen zen.

Garrasiak ziren nagusi, hitz itsusiak eta noiz-behinka bultzada edo astinduren bat gertatu ohi zen. Nahia titian zeukan bitartean, etxeko pentsamenduak etortzen zitzaizkion gogora, bere sendiak eta lagunek, oraindik ez zuten haurra ezagutzen, eta horrek ere ezinegona sortzen zion Mireni. Bere gogoia Nahia eta biak Nafarroan txango bat egitea zen eta horrela etxekoek umea

ezagutzeko aukera izatea, baina Karlos ez zen horren aldekoa.

Gero eta zakarragoa zen berarekin eta umearen negarrek asko gogaitzen zuen. Ahalegin txiki-kerik ere ez zuen egiten gauzak errazteko eta bere onera ekartzeko. Ahal bazuen eta egonez gero, *whisky* botila ondoan zuela amaitzen zuen gaua. Zoritarrez, azken aldian maizegi gertatzen zen.

Malkoak xurgatu eta zapiak aldatu zizkion umeari. Goizeko hamaikak ziren eta kanpora irten ziren paseotxo bat ematera.

Bazkaltzeko ez zuen ezer jarri, ez baitzen gose. Karlos ez zetorrenez, ogitarteko edo gazta pusketak bat jango zuen.

Alokairuko etxe zahar batean bizi ziren, eta igogailurik ez zuenez, larri ibiltzen zen umearen kotxea igo eta jaisten.

Etxeko atea itxi eta nola edo hala 2. solairura jaitsi zenean atsedena hartzen gelditu zen. Ate batetik gizon gazte bat atera zen, eta Mirenen aurpegia ikustean, Nahia eta kotxea hartu eta sarreraraino eramán zituen.

Mirenek eskerrak eman zizkion pare bat aldiz, eta gizonak irribarre batekin agurtu zituen biak.

Eguzkia ateratzen ari zen, nahiz eta oraindik lainoa nagusi zen zeru goialdean. Afarirako Karlosi gehien gustatzen zitzaizkion jakiak erosi zituen eta eguerdirako etxerantz abiatu ziren.

Umeentzako arropa denda baten aurretik pasa ziren eta erakusleihoan umea eramateko motxila eder bat ikusi zuen, baina dirua ere nahiko murriztua zutenez, etsipenak jota alde egin zuten handik.

Etxeko sarreran berriro ere, 2. solairuko gizon atseginarekin topo egin zuten eta Nahia eta koxea hartu eta 4.eraingo igo zituen. Eskerrak eman eta bakoitza bere etxean sartu zen.

Etxeko ateko txirrina jotzen hasi zen, Mirenek atea inoiz ez irekitzeko Karlosen agindua zuen, baina atearen bestaldekoa hitz egiten hasi zen: “Soy el chico del 2º, por favor, ¿me podrías dejar un poquito de sal?”.

Ahotsa entzutean ezaguna egin zitzaion eta ohikoa ez zen bezala, atea ireki zuen irribarre batekin.

Lehenengo aldia zen bi urtean, egun on edo arratsalde on esateko ez bazen ahoa irekitzen zuela ezezagun baten aurrean.

Gatza eman zion, eta horrela joan zen gizona. Orain bazekien bere izena, 55 urte zituela, ezkongabea zela eta bere ama zaharra zaintzen zuela, eta gustura hartuko lukeela emakume bat berari begiratzeko.

Hori dena esan zion 10 segunduan, eta irribarre handi batekin esan zion laguntza behar zue-nean lasai txirrina jotzeko.

Gazta pusketa bat hartu eta jan zuen telebista pixka bat ikusten zuen bitartean. Nahia lo zegoen, titia hartu eta gero.

Telebista ikusten hasi zen, eta, bertan, albistekak hasi ziren. Berriro emakume batek tratu txarrak jaso zituela eta senarra atxilotu zutela.

Zirrara bat pasatu zitzaion gorputz guztian. Ezagunak zituen bultzadak, astinduak, hitz itsusiak... Gauak gogorrek eta luzeak egiten zitzaizkion Mireni. Azken hilabetean Nahiaren gelan egiten zuen lo, Karlos ez molestatzearren, nahiz eta bera izan zarata gehien ateratzen zuena mozkorraren ondorioz.

Eguna bukatzeko, berriro ere bakarrik afaldu zuen, jan zuenari afaria dei bazekiokkeen.

Umea sehaskan jarri zuen eta Karlosen zain gelditu zen. Baina ez zen posible, 12:30ak ziren, astelehena, eta Karlos arratsaldeko 6etan ateratzen zen lanetik.

Ohean sartuta ere beldurrez zegoen, nola etorriko zen eta zer pasatuko zen. Bere biziko ilusioaz joan zen Madrila, aukera onena izango zela pentsatuz, baina... Nahia jaio zen eguna izan zen egunik zoragarriena, baina bakarrik egin zuen dena erditzean, inor ez zuen aldamenean, eta gero ere...

Lana egin arren, Karlosek ez zion dirurik ematen behar jakinetarako ez bazen. Bere bizia okerrera jotzen ari zen, ahal balu etxera joango li-

tzateke bere amarekin. Madrilen zegoen bitartean aita hil zitzaion eta ez zuen aukerarik izan agurtzera joateko autobus bat hartzeko dirurik ere ez baitzuen.

2. solairuko gizonak esan zionari erreparatuz, ondo etorriko litzaioke amonari konpainia eginenez Nahia zaintzea. Ez zion ezer esango Karlosi, eta sekretua mantentzeko esango zion Antonio-ri, horrela baitzuen izena.

Loak hartzearekin batera, txirrina eta ate joka hasi zen norbait, goizeko ordubiak ziren, beldur-rrak airean, atera joan zen.

Garrasika ari zen: “Ireki atea! Bestela bota egingo dut! Lo zaude alfer hori, ez duzu ezertarako balio, irekii!”.

Beldurrez ireki zuen eta bultzada batekin salako atearen kontra bota zuen Karlosek.

Hanken gainean ezin zuen zutik egon, eta Mirenek behin eta berriz esaten zion isiltzeko, umea esnatuko zuela eta, baina alferrik, gerritik heldu eta muxuka hasi zitzaion, usain nazkagarria botatzen zuen, ezetz esaten zion Mirenek, baina alferrik, min egiten zion. Pijamaren nikia puskatu zion eskutada batekin, ileetatik helduta ohearen gainera bota zuen, baina Mirenek ere barrutik indarrak aterata ez zion nahi zuena egi-ten utzi eta borrokan hasi ziren.

Mirenek begiondoko ederra jaso zuen, baina berak ere azazkalak erakutsi zizkion. Mirenek

lortu zuen Nahiaren gelan sartu eta atea kriske-  
tarekin ixtea, telefonoa eskuan zuen, buruan  
zeukan zenbakia, eguerdian telebistan ikusi eta  
gero.

Borrokak ez zuen jarraitu, eta dena pasatu zela  
ematen zuenean, Mirenek Nahia ondo tapatu,  
besoetan hartu eta alde egin zuen. Beldurtuta  
zegoen, baina lortu zuen alde egitea, bazekien  
Karlos egun guztia lo egongo zela.

2. solairuan txirrina jo zuen eta lehenengoan  
ireki ez bazioten ere, bigarrengoan azaldu zen  
Antioniok, argibide guztiak eman ondoren, sar-  
tzen utzi zion.

Mirenek esan zion arren utz ziezaion goizera  
arte egoten eta alde egingo zutela, autobus gel-  
tokira, hori bai, mesedez uzteko diru pixka bat,  
gero postaz bidaliko ziola dirua.

Antioniok lasaitzeko esan zion, eta berak lagun-  
duko ziola geltokira joaten, eta diruaz ez ardu-  
ratzeko.

Goizean goiz Miren eta Nahia etxerako bidean  
ziren.

Ez zekien nola hartuko zituzten etxean, baina  
urte hauetako hutsegiteak barkatu eta bere bizia  
zuzentzeko asmoz zihoan.

Bidaia gogorra zuten aurretik, baina umetxo-  
ak dena errazagoa izan zedin lagunduko zion.